



# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

11.zk 2017 • 5e



📷 Txelu Angoitia

# ibilbide**a**rruko k

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".


Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.









Ander Garaizabal

## Elvira Iñurrieta kantoia

ELORRIO

Zumelegi errekako eta alde zaharreko soinu paisaiak gurutzatzen diren tokia. Kanpai hotsak, katuak, jendea, ura, hizkuntza, lana... natura eta gizartea akustika bereziz entzuteko aukera ematen du.

Nire bizitzako unerik ederrenei begiratzeko kale kantoi hau gurutzatu behar dut. Bizitokitik irten eta herriarekin harremanetan jartzeko zaina da. Haize freskoa sartzen da. Berau arnastuz iritsi naiz musika lokaletara, gaztetxera, irrati libreria, Arriolara, kalera.

Kantoi honen izenak berak etorkizunera begira jartzen nau. Elvira Iñurrieta amagina zen. Gure amamak 2400 ume mundura ekartzen lagundu zuen. Lan isila eta emankorra egin zuen, gure herrian bizi den katu-jende askok egiten duen bezala.









Izaro

## Trabakua

MALLABIA

Elurra egiten zuenean eskolatik etxera bidaltzen gintuzten  
Trabakutik gora bizi ginenok.

Kalea botatzen genuen faltan baso inguruetan bizi ginenok.

Modan zegoen kalea.

Zer geneukan ba guk?

(Isiltasuna)(Bakea)(Intimitatea)(Natura)(Denbora)(Arnasa)

Nagusi egin ginenean parentesi guztiak desagertu ziren  
eta orain, basoa botatzen dugu faltan behin basoan bizi eta  
orain kalean bizi garenek.





Miguel Zugaza

## Tabirako San Pedro eliza


Historiaren eta arkitekturaren elezaharretako irakurketa erromantizismoan isurtzen da. Frogatu barik dauden hainbat historia Tabirako San Pedrori dagozkiola uste da XIX.mendetik; esaterako, Bizkaiko kristau tenplu zaharrena izatea eta Durangoko Kondeen – Sancho Estiguiz eta Doña Toda – hilobiak gordetzea. Umetan ezagutu genituen eta orain alboratzea zail diren Erdi Aroko ipuin hauek merezi dituen lekua da. Elizko egurrezko korutik, goitik, altareari begiratzea gomendatzen dut. Begiratu iezaiozue ferra-arkuen aroztegitik, osotzen duten zursare ederrean erreparatuz.












Marisa Barrena

## Erkoles

AMOREBIETA-ETXANO

Amak landatutako larrosak.  
Gure aitte zenaren goldea.  
Usaina, lana eta kolorea.  
Bedar siku sasoiko auzolana.  
Ittorren egiten nueneko akordua.  
Pazkoetako erromeridxe alaia.  
Nerabezaroko ametsen kabia.  
Klandestinitate garaia.  
Guardia Zibilen bisita.  
Heldu aroko gogoeta tokia.  
Gure alaben olgeta lekua.  
Erreka ertzeko lur emankorra.  
Uriola egunetako eztukura.  
Haritzaren gerizpea.  
Maitte dodan baserri zaharra.  
Hauxe da nire baztertxua



## Justo Alberdi

### Oromiño

Atsegin, toki asko; baina Oromiño!...

Auzo bat da eta hiru udalerrri:

Iurreta, Amorebieta-Etxano eta Muxika.

Oromiño errekan ikasi nuen igerian, Txirgoeneko presan...

Katian, gaseosa egiten Juanitagandik, urari hautsak botata...

Eta amodioa, holakorik!... Samarkon uztartu, non bestela!

Nire lehenengo bertso saioa ere, hantxe...

Trazolaldetik gorantza

Iparrean Osinbaltza

Mendebaldean Etxandieta

Muniketarantza

Ekialdean Artatza

Orain non nahi pinu baltza

Lehenago fama handikoa zen

Hemengo baratza!

Eta Katian goizero, zozo-birigarroek

esnatzen naute...



